



# Egunerokoa normaltasunez eramaten

Down sindromea duten pertsonak eguneroko bizitza normaltasunez egiteko gai direla aldarrikatu dute aurtan, Down Sindromearen Nazioarteko Egunean. Bailaran, besteak beste, Atzegi elkarteak dabil lanean pertsona hauek euren egunerokoa ahalik eta normaltasun handienarekin bizi dezaten.

Testua: **Josu Bilbao**. Argazkiak: **Josu Bilbao, Pilar Igartua, Ainhoa Inza eta Floren Elortondo**.



**E**guaztenean, martxoaren 21ean, Down Sindromearen Nazioarteko Eguna izan zen. Trisomia 21-arekin jaio ziren pertsonen eskubidea aldarrikatzeko eguna izaten da, eta euren bizitzak normaltasunez eramateko gai direla ozen adierazi nahi izaten dute elkarte ezberdinek.

*Mugarik gabeko bizitza baten alde* izan da aurten, leloetako bat. Izan ere, down sindromea dutenen gaineko aurreiritziekin apurtu eta dituzten beharrak asetzeko, eta kontzientzia hartzeko eguna dela azpimarratu du Euskal Herriko Down Sindromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioak: "Sindrome hau duten pertsonak oso bereziak dira, baina ez fisikoki desberdinak direlako, edota astiroago erantzuten dutelako. Uste baino muga eta oztopo gehiago gainditzen dituztelako dira hain bereziak".

Gipuzkoan, eta baita Debagoienean ere, boluntarioei bideratutako kanpaina jarri du martxan Atzegi elkarteak. Izan ere, down sindromea duten askok "besteen laguntza behar izaten dute", eta "boluntario horien beharra eta garrantzia" azpimarratzen du *Atzegi Xperience* kanpainak; deialdi dibertigarri baten bidez, boluntarioen esperientziak, modan dauden esperientzia kaxekin alderatuz, bizipen ahaztezinak izateko gonbita luzatu dute elkartetik. "Azkenean, boluntario izateko era ezberdinak crakutsi nahi dira; puntualki kolaboratzea, aldizka, zaletasunen bat partekatzea, ekimenetan parte hartzea, oporretara joatea edo besterik gabe, zerbait hartzera ateratzea", adierazi dute Atzegiko kideek.

Ainhoa Inda, lankideekin, Txantxiku ikastolako jantokian.

Alex Elortondo, hain maite duen UDA taldearen txandalarekin, eta bere aita Floren, Aretxabaletako Durana kalean.





Ainhoa Inda, hirugarrena ezkerretik hasita, kuadrillako kideekin Aloiñan.

## "Lanean oso gustura eta pozik nabil"

### AINHOA INDA

39 urte ditu Ainhoa Inda oñatiarrak. Gureakeko tailerrean lan egiteaz gain, Pauso Berriak programari esker, Txantxiku ikastolako jantokian ere badabil lanean. Dagoeneko bost urte daramatza jantokian, "oso gustura eta oso pozik".

"Tailerrean ere pozik ibiltzen naiz. Gainera, Zunba eta musikoterapia ere egiten ditut. Eta lagunekin ere oso gustura ibiltzen naiz", azaldu du Ainhoa Indak. Izan ere, musika da Ainhoaren zaletasun handietako bat: "Gustuko dut musika. Zunba eskoletara joateaz gain, Olaia Ramosekin musikoterapia egiten dut Arrasaten, eta dantzan ere ibiltzen gara. Lehen,

pianoa jotzen ikastera ere joaten nintzen".

Lierni Elortzak, Ainhoaren lankideak, azaldu duen moduan ikastolan "oso gustura" daude berarekin eta egiten duen lanarekin: "Oso ondo gaude berarekin. Umeak asko gustatzen zaizkio eta ondo konpontzen da eurekin. Ainhoak urtebeteko umeei ematen die bazkaltzen, eta laguntzen ibiltzen da lehen orduan;

**BOST URTE DARAMATZA  
TXANTXIKU IKASTOLAKO  
JANTOKIAN LANEAN,  
ATZEGIRI ESKER**

ondoren, garbiketa egin ostean, goiko pisuan beste umeei ematen die bazkaria. Asko laguntzen digu eta oso gustura gaude berarekin".

#### **Ikasteko grina**

Pilar Igartua da Ainhoa Indaren ama. Umetatik izan duela ikasteko grina eta gainditzeko ahalmena azpimarratu du, besteak beste: "Urtebete zuenean Donostiara joaten nintzen berarekin, hilean behin, gero astero. Estimulazio azkarra jasotzen zuen han Ainhoak. Horrela ibili ginen 6 urte bete arte. Oñatin, orduan, ez zegoen espezialista zen medikurik, eta gero Arrasatera joaten ginen.

Gero eskolan hasi zen, eta oso ondo egia esateko. Oñatin eskolaratu zen down sindromea zuen lehenengoa izan da, eta ez zuen arazorik eduki. Gero ikasketak jarraitu zituen eta Aretxabaletako institutuan geriatria kurtso bat ere egin zuen, eta nagusien egoitzan lanean ibili zen, praktikak egiten. Hortik tailerrera joan zen, Gureakera. Pauso Berriak programaren bidez, ostera, Donostian ikastaro bat egin zuen, eta dagoeneko bost urte daramatza Txantxiku ikastolako jantokian lanean".

Eta Igartuak gaineratu du: "Ainhoak gaitasun handia du. Lanean eta etxean erakusten du hori; ordutegia, ordena eta betebeharrak errespetatzen oso zurrin da".

#### **Lagunekin pozik**

"Izugarrizko lagunak eta kuadrilla izan ditu, egia esan behar da. Zerbait egiten dutela ere beti hartzen dute Ainhoa kontuan. Eta lagunekin gauza asko eta asko ikasi ditu, gainera", azaldu du oñatiarraren amak.



Ainhoa, Ereaga hondartzan, Getxon.

Ainhoa Inza da Indaren kuadrillakoa, eta kideek naturaltasun osoz hartu dutela beti azaldu du: "Ikustekoa da kuadrillan nola gauden guztiok integratuta. Naturaltasun osoarekin bizi izan dugu

Ainhoak down sindromea izatea. Guretako Ainhoa kuadrillako beste kide bat gehiago izan da beti, bere berezitasunarekin, baina ez dugu bera barik planik egiten. Gainera, beti apuntatzen da plan guztietara".

"Berezia da Ainhoa. Ez down sindromea duelako, baizik eta kuadrillarekiko duen jarreragatik, maitasun handikoa delako. Hitzez eta ekintzez erakusten digu izugarri maite gaituela, eta hain zuzen horregatik, Ainhoa pieza berezia da gure artean. Gainera, ume mordoia ditugu dagoeneko kuadrillan, eta zer nolako naturaltasunarekin bizi duten horiek ere Ainhoa parte izatea ikusgarria da. Guztion arteko harremana erabat naturala da", dio Ainhoa Inzak.



Ainhoa, kuadrillako lagunekin batera.